



## 19.BULETINA

### Hiritarron Harrera-Sarea / Red Ciudadana de Acogida

**Alarma estatuko 19. eguna. 2020ko apirilaren 3a, ostirala.**

### Hilaren 2ko, osteguneko, Kudeaketa / Jarduerak

#### BALIABIDE INSTITUZIONALAK

**Bide-orria.** Gure erakundeen buru daudenek bi diskurtso dituzte beti.

**A diskurtsoa.** Egoera kontrolpean daukagu, arazoak konpontzen ari gara... Komunikazio-kabineteak dagokion urtegia inauguratuz emango duen argazkiarekin batera, komunikabideetan sinesgarritasuna emango diona.

**B diskurtsoa.** Ahal duguna egiten dugu, ez dago bitarteko gehiagorik, ezin da denera iritsi ... ezinezkoa zaienean ukatzea badaudela atenditzeko gauza ez diren beharrak.

Jakina, badira erakunde asko premia-egoera hauetan ahaleginak egiteko prestatzen direnak, diskurtso horiek zalantzan jartzen dituztenak eta beste lehentasun batzuk dituzten beste politika batzuk eskatzen dituztenak. Horregatik, instituzioek **beste estrategia bat ere garatzen** dute. Hau da, foroak, batzordeak, jardunaldiak, kongresuak ... ugaritzea, beren inplikazioa eta beste eragile batzuek ere parte-hartzen duten erakusgarri. Topaketa eta azterlan mordo horren atzetik ba ote datoz haien ondorioak operatibo bihurtzen dituzten politikak? Tira, hori beste kontu bat da. Dena nahi dugu eta...

**Benetako parte-hartzea.** Aurrerapauso oso garrantzitsua litzateke azterketak eta gomendioak sakoneko zarata batetik harago joango balira, interesgarria, bai, baina ez operatiboa. Izan ere, gure komunitate zientifiko, akademiko eta asoziatiboak ezagutza-maila handia du, eta interes handiko azterlanak egiten ditu, proposamen oso egokiekin. Baina, gehienetan, ez dira gauzatzen politika zehatzetan. Kontua ez da soilik entzutea, baizik eta entzutea eta praktikan jartzea.

**Esperientzia pilotuak.** Oso ondo daude. Betiere inplikazioa erakusteko taktika ez badira, "Abangoardian" kokatu, eta gero hor geratu. Hedabideetan salmenta ona eginez.

**Gure eskaria.** Horrekin guztiarekin berretsi nahi dugu **une honetatik bertatik ekin behar zaiola etxerik gabeko pertsonak Alarma egoera amaitzen denean harrera-baliabideak izan ditzaten abian jartzeari**. Hilabete baino gehiago dugu aurretik. **Hasiko al gara lanean? Edo kalera botako ditugu hau bukatzean?**

#### KOMUNIKAZIOA

18. buletina zabaldu da sareetan eta komunikabideei helarazi zaie.

#### BORONDATEZKO BALIABIDEEN ESKAERA ETA ERANTZUN SOLIDARIOAK

**Ekarpen ekonomiko solidarioari** dagokionez, 139 pertsonak emandako diru-sarrerak guztira **9.072 €** izan dira.

**Gandariasek eta Pandorak** egunero egiten dituzten janari ekarpenei **El Fogón de Miramon** gehitu zaie. Era berean, **Atotxako Eroskiren** elikagaiak jaso ditugu.



## 19.BULETINA

### Hiritarron Harrera-Sarea / Red Ciudadana de Acogida

**Biharamuneko pilulak.** Ba al dakigu nortzuk diren etxerik ez duten pertsona horiek? Zein behar dituzten? Zein eskubide? Zer ilusio? Zer trebetasun? Zer laguntza eman diezaiekegun? Galdera horiei zuzenduko dizkiegu Biharamuneko Pilulak.

## 8. PILULA

### EMAKUMEAK

**Zifrak ez dira berdinak.** Pandemia dela eta prestatutako larrialdi-baliabideetan hartutako etxerik gabeko pertsonak berehundurik gora izanik, hamar emakume baino ez? Horiek besterik ez dira etxegabetasunean dauden emakumeak? Ez da oso sinesgarria...

**Zaharrak, emakumeak eta haurrak lehendabizi!** Kapitainak, itsasontzia hondoratzen denean, eta beste jende-pilaketetan oihu hori egin ohi da. Izan ere, **emakume ahularen, babesaren behar duenaren, irudia bizirik dago oraindik.** Irudi hortaz baliatu da, aspaldidanik matxismoa emakumea senarraren edo beste gizonen baten "babespean" jartzeko. Ikuspegi horrek are gehiago egiten du talka emakume migratzaileek erakutsitako ekimen-gaitasunarekin, horiek izaten baitira, askotan, migrazio-katea hasten dutenak.

**Ahaldunak.** Eskatzen dutena ez da ahalduntzea, beren eskubideak babestea baizik. Ahaldunduta daude, baina ilaran zain daude erakundeek tratatu berdina bermatzeko orduan. Hor daude etxeko langile asko, internak kasu askotan, beren eskubideak berdintasunez aitortuta ez dituztenak; norberaren etxebizitza pribatua, "bortxaezina" omen delako aitzakiaz haien aldeko erakundeen esku-hartzerik ez baitago. Eta interna askoren egoera etxerik ez izatearen parekoa da.

**Etorri, entzungo zaituztegu.** Administrazioaren jarrera pasiboa ez da onargarria babesgabetasun-egoerak hautemateko orduan. Batzuetan, **emakume batzuek ez dute gizarte zerbitzuetara jotzen zaila delako behar dituzten baliabideak haietan aurkitzea.** Gizarte zerbitzuek ere ezin dute miraririk egin dauzkaten aurrekontu eskasekin. Ondorioz, emakume haiek **estrategia propioak garatzen dituzte sabaia eta janaria eskuratu ahal izateko, zenbaitetan esplotazio-egoeren truke, baita beste mota bateko abusuen truke ere.** Gara ezazue politika proaktibo bat, eta ikusiko duzue nola azaleratzen diren etxegabetasun-egoeran dauden emakumeak. Baina hori egin, ez estatistika osatzeko, esku hartzeko baizik.

Harrera Sarearen **Buletinean**, funtsean, **migratzaileei dagozkien etxegabetasun-profilez hitz egiten dugu**, hori baita gure lan-esparrua. Baina etxegabetasuna unibertso askoz zabalagoa da, eta hainbat erakundek lan egiten dute bertan, eta horiei buruzko iritzia ere jaso behar da, dagozkien politikak taxutzerakoan

**Etxerik gabeko emakumeentzako politika proaktiboak, orain.**

Donostiako Hiritarron Harrera-Sarea / Red de Acogida Ciudadana de Donostia

**Kontaktua:** [redacogidaciudadana@gmail.com](mailto:redacogidaciudadana@gmail.com) 675 71 53 15

**Facebook:** @HiritarronHarreraSarea      **Instagram:** @RedAcogidaCiudadana

**Dohaintzak:** cc ES44 2095 5013 70 9119577666

**ZABAL EZAZU, bidali zure ekarpenak, iradokizunak, salaketak.**